JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

**SILVIA PENA LORENTEK, ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIKO IDAZKARIAK, ZIURTATZEN DU:**

2026ko ekainaren 29an egindako ohiko Osoko Bilkuran honako akta hau egin da:

"Zaraitzuko Etxeko bilkura-aretoan (Ezkaroze), 2026ko ekainaren 29ko 18:00etan, Zaraitzuko Batzorde Nagusiak ohiko Osoko Bilkura egin du, Gustavo Goiena Agirre Batzordeburu dela.

Batzordekide hauek bertaratu dira:

**ALDAGAINA:** Juan Ángel Contín Carlosena eta Iñaki de Carlos Intxusta.

**ERRARTEA:** Maitane Eslava Pena.

**ATABEA**: Milagros Zubiri Sanz eta Gustavo Goiena Agirre.

Koldo Vicente Eseberrik, Unai Yarza Salaberriak eta José Ángel Molinero Torreak ezin etorria adierazi dute.

Batzordeburuak bilkura hasi, eta honako erabaki hauek hartu dira:

**1. AURREKO BILKURAREN AKTA ONESTEA**

Maiatzaren 6ko Osoko Bilkuraren akta ikusirik, deialdiarekin batera banatu dena, aho batez onetsi da.

**2. IRATIKO BIOSFERA ERRESERBAKO EKINTZA PLANA ONESTEA, EGOKIA BADA**

Batzordeburuak batzordekideei azaldu die Irati Biosfera Erreserbako Ekintza Plana onetsi behar dela. Adierazi duenez, dokumentu hori funtsezko tresna estrategikoa da Erreserbako lurraldean kontserbaziorako, garapen jasangarrirako eta parte-hartze sozialerako

**SILVIA PENA LORENTE, SECRETARIA DE LA JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR, CERTIFICO:**

Que de la sesión **ORDINARIA** celebrada con fecha 29 de junio de 2026, se ha extendido el acta que se transcribe a continuación:

"En la Villa de Ezcároz y en la Sala de Sesiones de la Junta General del Valle de Salazar, siendo las 18:00 horas del **día 29 de junio del 2026**, se reúne la expresada Junta, al objeto de celebrar, previa convocatoria cursada al efecto en forma reglamentaria, Sesión ordinaria bajo la Presidencia de D. Gustavo Goiena Agirre y con la asistencia de las y los siguientes Vocales:

**POR ALDAGAÑA:** D. Juan Ángel Contin Carlosena y D. Iñaki de Carlos Inchusta.

**POR ERRARTEA:** Dña. Maitane Eslava Pena.

**POR ATABEA:** Dña. Milagros Zubiri Sanz y D. Gustavo Goiena Agirre.

Excusan su asistencia D. Koldo Vicente Eseberri, D. Unai Yarza Salaberria y D. Jose Ángel Molinero Torrea.

Abierta la sesión por el Sr. presidente, se adoptaron los siguientes acuerdos:

**1.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, ACTA SESIÓN ANTERIOR**

Vista el acta del 6 de mayo adjuntada a la convocatoria, se aprueba por unanimidad.

**2.- APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL PLAN DE ACCIÓN DE LA RESERVA DE LA BIOSFERA DE IRATI**

Por parte de la Presidencia se expone a los miembros de la Junta la importancia de proceder a la aprobación del Plan de Acción de la Reserva de la Biosfera de Irati. Se señala que este documento constituye la herramienta estratégica fundamental para coordinar las políticas de conservación, desarrollo sostenible y participación social en el territorio de la

politikak koordinatzeko eta tokiko kudeaketa eta UNESCOren MaB Programaren gidalerroak bateratzeko.

Nabarmendu du behin betiko dokumentuak parte-hartze publikoko prozesuaren ekarpenak biltzen dituela eta aldeko txosten teknikoak jaso dituela.

Gaia eztabaidatu ondoren, Batzordeak aho batez erabaki du:

Lehenengoa. Iratiko Biosfera Erreserbako Ekintza Plana onestea, administrazio-espedientean jasota dagoen moduan eta edukiarekin.

Bigarrena. Batzordeburuari eskumena ematea erabaki hau eraginkorra izateko, garatzeko eta erakunde eskudunei bidaltzeko beharrezkoak diren dokumentuak sinatu ditzan.

**3. PISTETAN IBILTZEKO BAIMEN BEREZIAK EMATEA, EGOKIA BADA**

Idazkariak adierazi du Batzordearen pistetan (Irati eta Zabaleta) ibiltzeko baimen bereziak emateko irizpideak argitu eta arautu behar direla, bereziki indarrean dagoen ordenantza arau-emailean hertsiki sartzen ez diren kasuetarako.

Sarbidea behar duten eta gaur egun zalantza sortzen duten zenbait kolektiboren arazoaz eztabaidatu da. Adierazi da ez dagoela arau-esparru argirik kolektibo eta jarduera hauetarako: Ibilbide Handiko bidexkak (GR) garbitzeko eta mantentzeko lanak, Irati Lau Ibarrak elkartearen deialdiak eta lan-jardunaldiak, arrantzaleak eta ehiztariak, ikerketa zientifikoak eta datu-bilketak egiten dituzten pertsonak, ikus-entzunezko grabazioak eta erreportajeak egiten dituztenak, basogintzako langileak eta abeltzainak.

Reserva, alineando la gestión local con las directrices del Programa MaB de la UNESCO.

Asimismo, se hace constar que el documento final integra las aportaciones del proceso de participación pública y cuenta con los informes técnicos favorables pertinentes.

La Junta, tras deliberación y por unanimidad, **ACUERDAN:**

**Primero. -** Aprobar formalmente el Plan de Acción de la Reserva de la Biosfera de Irati, en los términos y con el contenido que consta en el expediente administrativo.

**Segundo. -** Facultar a la Presidencia para la firma de cuantos documentos sean necesarios para la efectividad, desarrollo y remisión del presente acuerdo a los órganos institucionales competentes.

**3.- CONCESIÓN, SI PROCEDE, DE AUTORIZACIONES DE PASE DE PISTAS EXTRAORDINARIAS**

Por parte de secretaría se expone la necesidad de regular y clarificar los criterios para la concesión de **autorizaciones extraordinarias** de paso por las pistas del comunal de la Junta (Monte Irati y Zabaleta), especialmente para aquellos supuestos que no encajan estrictamente en las ordenanzas de pistas actuales.

Se debate la problemática de colectivos específicos que requieren acceso y cuya situación actual genera dudas. En particular, se señala la falta de un marco claro para las personas que acuden a realizar las labores de limpieza y mantenimiento de los Senderos de Gran Recorrido (GR), así como para las convocatorias y jornadas de trabajo de la Asociación Irati Lau Ibarrak, sector pesquero y cazadores, labores de investigación científica y toma de datos, grabaciones audiovisuales y reportajes, y personal forestal y ganaderos.

31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Aipatu da, zuzenbide konparatu eta jardunbide egoki gisa, Aezkoako Batzar Nagusiak zenbait kasu aurreikusi eta horietarako baimen bereziak ematen dituela, hala nola, grabazioak, ikerketak, baso-langileak, abeltzainak eta ehiztariak.

Gaiaz eztabaidatu ondoren, bozketa egin da, eta Batzordeak aho batez erabaki du:

1. Ibiltzeko baimena ematea honako kasu hauetarako:

- Ikus-entzunezko grabazioak eta erreportajeak
- Ikerketak
- Baso-langileak
- Abeltzainak
- Ehiztariak
- Batzordeak unean-unean baimentzen dituenak: Ibilbide Handiko bidexkak (GR) garbitzea eta mantentzea, Irati Lau Ibarrak elkartearen deialdiak eta lan-jardunaldiak, etab.).

2. Batzordeburuari eskumena ematea baimen horiek eman ditzan, betiere ezartzen diren kontrol-baldintzen arabera.

A modo de derecho comparado y buena práctica, se constata que en la Junta General del Valle de Aezkoa ya se contemplan y expiden de forma reglada este tipo de autorizaciones extraordinarias para casos de grabaciones, investigaciones, personal forestal, ganaderos y cazadores.

Tras un intercambio de opiniones entre los miembros de la Junta sobre estos pases, se procede a la votación.

**ACUERDO:**

Aprobar la concesión de autorizaciones extraordinarias de paso para los supuestos:

- Grabaciones audiovisuales y reportajes.
- Investigaciones.
- Personal forestal.
- Ganaderos/as.
- Cazadores.
- Los que puntualmente autorice la Junta (limpieza y mantenimiento de los Senderos de Gran Recorrido (GR), así como para las convocatorias y jornadas de trabajo de la Asociación Irati Lau Ibarrak, etc.).

facultando a la Presidencia para la expedición de los correspondientes pases bajo las condiciones de control que se determinen.

## 4. JON RIDRUEJOK LARREZAIN LANPOSTUARI UKO EGITEA ETA ANDONI AZCOITI ALDI BATERAKO KONTRATATZEA

Jon Ridruejok ekainaren 9an aurkeztutako idazkiaren berri eman da. Horren bidez, Batzordeko larrezain lanpostuari uko egin dio. Idazkia aztertu eta orain arte egindako zerbitzuak eskertu ondoren, Batzordeak aho batez erabaki du Jon Ridruejoren ukoa onestea eta plaza hutsik deklaratzea.

## 4.- RENUNCIA DE JON RIDRUEJO COMO GUARDA DE PASTOS Y CONTRATACIÓN TEMPORAL DE ANDONI AZCOITI COMO GUARDA DE PASTOS PARA EL 2026

Se da cuenta del escrito presentado por Don Jon Ridruejo con fecha 9 de junio, por el cual manifiesta su renuncia formal al cargo de Guarda de Pastos de esta entidad. Examinado el documento y agradeciendo los servicios prestados hasta la fecha, la Junta General, por unanimidad, acuerda **aceptar formalmente la renuncia** de Don Jon Ridruejo, declarando la plaza vacante.

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Jarraian, Andoni Azcoiti Gorria aldi baterako kontratatzea proposatu da (2024ko aldi baterako kontratazio-prozesuaren ondorioz), 2026ko kanpainan larreak behar bezala kudeatu, kontrolatu eta zaintzen direla bermatzeko, lanpostua betetzea premiazkoa baita.

Batzorde Nagusiak aho batez erabaki du:

Lehenengoa. Andoni Azcoiti Gorriaren aldi baterako lan-kontratazioa onestea, 2026ko azaroaren 3ra arte.

Bigarrena. Batzordeburuari eskumena ematea lan-kontratua eta akordio hau eraginkorra izateko eta erakunde eskudunetan izapidetzeko behar diren dokumentu guztiak sinatu ditzan.

**5. 2026KO KULTUR ETA KIROL JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZA ESKAERAK**

Aho batez onetsi dira aurkeztutako aurrekontu hauek:

**GURASO ELKARTEA**

Txikiei telefono mugikorra erosteko adina atzeratzeko kanpaina.

Aurrekontua: 600,00 €

% 33ko dirulaguntza: 198,00 €

**KAKORRATZ TALDEA**

Arte hori ikasteko, harremanak laguntzeko eta estresari aurre egiteko jarduera.

Aurrekontua: 2.160 €

% 33ko dirulaguntza: 712,80 €

**IGERIKETA TALDEA**

Uda hasieran Espartzako kanpinean egiten den haurrentzako jarduera fisikoa, igeriketa-teknikak ikasteko edo hobetzeko.

Aurrekontua: 1.500 €

% 33ko dirulaguntza: 495 €

**PINTURA TALDEA**

Seguidamente, y ante la necesidad urgente e inaplazable de cubrir dicha plaza para garantizar la correcta gestión, control y vigilancia de las zonas de pastizales durante la campaña del año 2026, se expone la propuesta de contratación laboral temporal de Don Andoni Azcoiti (tras el proceso de contratación temporal del 2024).

La Junta General adopta, por unanimidad, el siguiente **ACUERDO:**

**PRIMERO.** Aprobar la contratación laboral temporal de Don Andoni Azcoiti Gorria como Guarda de Pastos de esta entidad para la campaña del año 2026 hasta el 3 de noviembre.

**SEGUNDO.** Facultar a la Presidencia para la firma del correspondiente contrato laboral y de cuantos documentos sean necesarios para la efectividad y tramitación de este acuerdo ante los organismos competentes.

**5.- SOLICITUDES ACTIVIDADES CULTURALES Y DEPORTIVAS 2026**

Se APRUEBAN POR UNANIMIDAD los siguientes presupuestos presentados:

**APYMA**

Campaña retraso compra móvil en menores.

Presupuestad: ………..600,00 €

33% subvención: ………..198,00 €

**GRUPO DE GANCHILLO**

Actividad que potencia facilitar la relación y aprender un arte, así como terapia ante el estrés.

Presupuestado ………..2.160,00 €

33% subvención ………..712,80 €

**GRUPO DE NATACIÓN**

Actividad física que se realiza al inicio de la época estival en el Camping de Esparza dirigido a niños y niñas para aprender o perfeccionar técnicas de natación.

Presupuestado ………..1.500,00 €

33% subvención ……..  495,00 €

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Pintura teknikak ikasteko jarduera, jende ororentzat.

Aurrekontua: 2.300 €

% 33ko dirulaguntza: 759 €

**GIMNASIA TALDEAK (EZKAROZE ETA OTSAGABIA)**

Gorputza aktibatzeko jarduera fisikoa.

Aurrekontua: 2.681,05 €

% 33ko dirulaguntza: 884,75 €

**YOGA OSOA TALDEA**

Yoga jarreretan eta mugimendu dinamiko eta errepikakorretan oinarritutako jarduera, denbora jakin batzuek markatutako arnasketa espezifiko batekin batera.

Aurrekontua: 1.800 €

% 33ko dirulaguntza: 594 €

**ARETOKO YOGA TALDEA**

Gorputza eta burua ezagutzeko, kontrolatzeko eta zaintzeko jarduera fisikoa eta mentala, eguneroko bizitzari aurre egiteko.

Aurrekontua: 5.000 €

% 33ko dirulaguntza: 1.650 €

**INDARRA TALDEA (JAURRIETA)**

Gorputza aktibatzeko jarduera fisikoa.

Aurrekontua: 2.000 €

% 33ko dirulaguntza: 858 €

**CROSSFIT TALDEA**

Aurrekontua: 2.600 €

% 33ko dirulaguntza: 858 €

Eskatutakoa: 800 €

**INDARRA TALDEA (ESPARTZA)**

Aurrekontua: 715 €

% 33ko dirulaguntza: 235,95 €

Eskatutakoa: 235 €

**ANTZERKI TALDEA**

Ibarrean berriz bultzatu nahi den jarduera.

Aurrekontua: 3.595 €

**GRUPO DE PINTURA:**

Actividad para toda la población para aprender diferentes técnicas de pintura.

Presupuestado .......... 2.300,00 €

33% subvención ......... 759,00 €

**GRUPO DE GIMNASIA EZCÁROZ Y OCHAGAVÍA**

Actividad física para activar el cuerpo.

Presupuestado .......... 2.681,05 €

33% subvención .......... 884,75 €

**GRUPO DE YOGA INTEGRAL**

Actividad basada en posturas de yoga y movimientos dinámicos y repetitivos coordinado con una respiración específica marcada por unos tiempos determinados.

Presupuestado ............. 1.800,00 €

33% subvención ........... 594,00 €

**GRUPO DE SPINNING**

Presupuestado ............ 2.600,00 €

33% subvención .......... 858,00 €

Solicitado .......................800,00€

**GRUPO DE YOGA SALA**

Actividad física y mental para el conocimiento, control y cuidado del cuerpo y mente, para hacer frente a la vida cotidiana.

Presupuestado ............. 5.000,00 €

33% subvención .......... 1.650,00 €

**GRUPO DE FUERZA JAURRIETA**

Actividad física para activar el cuerpo.

Presupuestado .......... 2.000,00 €

33% subvención ...........660,00 €

**GRUPO DE CROSSFIT**

Presupuestado ............ 2.600,00 €

33% subvención .......... 858,00 €

Solicitado .......................800,00€

**FUERZA ESPARZA**

Presupuestado ............ 715,00 €

33% subvención .......... 235,95 €

Solicitado .......................235,00€

**GRUPO DE TEATRO**

31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

% 33ko dirulaguntza: 1.186,35 €
Eskatutakoa: 1.095 €

**JARDUERAK, GUZTIRA: 27.551,05 €**
**% 33 DIRULAGUNTZA: 9.091,85 €**

Jaurrietako Zatoia elkarteak aurkeztutako eskaeraren berri eman da. Hiru antzerki-emanaldiren kontratazio-kostuak ordaintzeko dirulaguntza eskatu du.
Aurrekontua: 2.783,00 €
% 33ko dirulaguntza: 918,39 €

Eskaera eta aplikatu beharreko araudia aztertu ondoren, egiaztatu da Batzordearen kultur eta kirol jardueretarako laguntzak arautzen dituzten oinarrien helburu bakarra dela parte-hartzaileek jarduerak modu aktiboan praktikatzearen edo gauzatzearen kostu ekonomikoa finantzatzea eta murriztea (*dirulaguntza honen xedea da jardueretan parte hartzen duten pertsonei kostu ekonomikoa murriztea*). Aurkeztutako proiektua jendeak modu pasiboan goza ditzakeen ikuskizunen kontratazio bat denez, ekintza hori ez dator bat laguntza horien xedearekin eta helburuarekin.

Hori dela eta, Batzorde Nagusiak aho batez erabaki du Zatoia elkarteak eskatutako laguntza ukatzea, oinarri arautzaileetan ezarritako xedea ez betetzeagatik, eta hala jakinaraziko zaio erakunde interesdunari.

**6. NAFARROA EZAGUTU SAREKO DIRULAGUNTZA ESKAERA**

Toki Administrazioko eta Despopulazioko zuzendari nagusiaren 89E/2026 Ebazpenaren berri eman da. Ebazpen horren bidez, "Toki entitate eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako dirulaguntzak, lurralde

Actividad que se quiere volver a crear en el Valle.
Presupuestado ……….. 3.595,00 €
33% subvención ………..1.186,35 €
Solicitado ……..……………1.095,00€

**Suma Total Actividades: 27.551,05 €**
**33% Subvención: 9.091,85 €**

Se da cuenta de la solicitud presentada por la **Asociación Zatoia Elkartea** de Jaurrieta, por la que interesa ayuda económica para sufragar los costes de contratación de tres actuaciones teatrales.
Presupuestado ………. 2.783,00 €
33% subvención ……… 918,39 €

Analizada la solicitud y confrontada con la normativa de aplicación, se constata que las vigentes bases reguladoras de ayudas para actividades culturales y deportivas de esta Junta tienen por objeto exclusivo cofinanciar y reducir el coste económico de la *práctica o ejecución activa* de actividades por parte de las personas participantes (*El objeto de esta subvención es reducir el coste económico para las personas participantes en las diversas actividades*). Al tratarse el proyecto presentado de una contratación de espectáculos externos de carácter pasivo para el público, dicha acción no tiene encaje en el objeto ni en la finalidad para la que fueron diseñadas estas ayudas.

Por lo expuesto, la Junta General, por unanimidad, acuerda denegar la ayuda solicitada por la Asociación Zatoia Elkartea por no cumplir el requisito de objeto establecido en las bases reguladoras, notificándose así a la entidad interesada.

**6.- SOLICITUD SUBVENCIÓN RED EXPLORA**

Se informa de la Resolución 89E/2026 del director general de Administración Local y Despoblación, por la que se aprueba la convocatoria de "Subvenciones a EELL y entidades sin ánimo de lucro para ejecutar

garapen jasangarriko proiektuak gauza ditzaten, 2026. urtean, Nafarroa Ezagutu Sareko espazioetan eta ibilbideetan" izeneko deialdia onetsi zen. Zaraitzuko Batzordeak jarduketa hauetarako dirulaguntza eskatu du:

1. Zaraitzuko Batzorde Nagusiaren jabetzakoa den Zabaleta mendiko Itsuosin ur-jauzirako sarbidea egokitzea eta laguntza teknikoa: 31.241,43 euro, BEZa barne.

2. Iratiko Harrera Gunearen sarbideko merenderoen eta aparkalekuen eremua egokitzeko eta birgaitzeko lanak eta ordainsariak: 40.958,17 euro, BEZa barne.

**7. PIRINIOKO PLANARI LOTUTAKO JARDUERETARAKO DIRULAGUNTZA ESKAERA**

Toki Administrazioko eta Despopulazioko zuzendari nagusiaren 147E/2026 Ebazpenaren berri eman da. Ebazpen horren bidez, "Pirinioetako toki entitateentzako dirulaguntzak, Pirinioetako Planari lotutako ekintzak finantzatzeko" izeneko deialdia onetsi zen. Zaraitzuko Batzordeak jarduketa hauetarako dirulaguntza eskatu du:

1. Iratiko (Zaraitzu) Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integrala (IPI) eta Prestakuntza: 17.774,90 euro, BEZa barne.

2. Iratiko Muxumurru putzua hobetzeko proiektuaren iragazgaizte-geruza berritzearen ordainsariak: 13.243,85 euro, BEZa barne.

**8. BATZORDEAREN 2025EKO KONTU OROKORRAK BEHIN BETIKO ONESTEA**

Batzordeburuak gogorarazi du Batzorde Nagusiak 2025eko ekitaldiko kontu orokorrak hasiera batean onetsi zituela, indarrean dagoen

proyectos de Desarrollo Territorial Sostenible en espacios e itinerarios de la Red Explora Navarra para los años 2026", para la cual se ha solicitado subvención para las siguientes actuaciones:

1. Asistencia técnica y Adecuación de acceso a la cascada Itsuosin en el Monte Zabaleta, propiedad de la Junta General del Valle de Salazar con un importe de 31.241,43€ IVA incluido.

2. Honorarios y Trabajos para la adecuación y rehabilitación de la zona de merenderos y aparcamientos en el acceso del Centro de Acogida de la Selva de Irati con un importe de 40.958,17€ IVA incluido.

**7.- SOLICITUD SUBVENCIÓN ACCIONES VINCULADAS AL PLAN DEL PIRINEO**

Se informa de la Resolución 147E/2026 del director general de Administración Local y Despoblación, por la que se aprueba la convocatoria de "Subvención a Entidades Locales del Pirineo para financiar acciones vinculadas al Plan del Pirineo", para la cual se ha solicitado subvención para las siguientes actuaciones:

1. Formación y Plan Integral de Accesibilidad Universal (PIA) de la Selva de Irati (Valle de Salazar) con un importe de 17.774,90€ IVA incluido.

2. Honorarios de la renovación capa impermeabilizante proyecto de mejora balsa Muxumurru, Irati con un importe de 13.243,85€ IVA incluido.

**8.- APROBACIÓN DEFINITIVA DE LAS CUENTAS GENERALES DE LA JUNTA CORRESPONDIENTES AL EJERCICIO ECONÓMICO 2025**

Por parte de la Presidencia se expone que, dando cumplimiento a lo dispuesto en la normativa foral y de régimen local vigente, la Cuenta General de esta entidad correspondiente al ejercicio de 2025 fue objeto de aprobación inicial por esta Junta General.

foru- eta toki-araubideko araudian xedatutakoarekin bat.

Ondoren, espediente osoa jendaurrean jarri zen legez ezarritako epean, iragarkia Batzordearen iragarki-oholean jarrita, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak aurkez zitzaten.

Idazkariak ziurtatu duenez, jendaurrean jartzeko epea igaro ondoren, ez dela inolako erreklamaziorik edo alegaziorik aurkeztu kontu horien aurka.

Espedienteari erantsitako agiriak aztertu ondoren, Batzorde Nagusiak aho batez erabaki du:

1. <u>Lehenengoa</u>. 2025eko ekitaldi ekonomikoko kontu orokorra behin betiko onestea.

2. <u>Bigarrena</u>. Kontu Orokorra, hori osatzen duten agiri guztiekin batera, Nafarroako Kontuen Ganberari eta Nafarroako Gobernuko dagokion departamentuari igortzea, indarrean dauden kanpo-kontroleko eta gardentasuneko betebeharrak betetzeko.

3. <u>Hirugarrena</u>. Batzordeburuari eskumena ematea erabaki hau eraginkorra izateko eta izapidetzeko beharrezkoak diren dokumentu eta ziurtagiri guztiak sinatu ditzan.

**<u>9. LURSAILA DESAFEKTATZEA, ONDOREN CEDERNA GARALURRI ERABILERA LAGATZEKO, EGOKIA BADA.</u>**

Desafektazioaren xede den eremua Iratiko herri-lurra da, guztira 37,55 m² esparru bakar batean: zeru-behatokiak, 7,55 m²; eta argindar-lerroak, 30 m². Lagapena CEDERNA GARALUR elkartearen alde eginen da (IFK: G31372063).

Posteriormente, el expediente completo fue sometido al preceptivo periodo de exposición pública mediante la inserción del correspondiente anuncio en el tablón de anuncios, por el plazo legalmente establecido, con el fin de que las personas interesadas pudieran examinarlo y presentar las reclamaciones, reparos u observaciones que estimaran oportunas.

La Secretaría de la Junta certifica que, transcurrido íntegramente dicho plazo de exposición, **no se ha presentado ninguna reclamación ni alegación** contra las citadas cuentas.

Examinada la documentación que acompañan al expediente, la Junta General acuerda por unanimidad el siguiente **ACUERDO:**

1. **PRIMERO.** Aprobar de forma definitiva la Cuenta General de esta Entidad correspondiente al ejercicio económico de 2025.

2. **SEGUNDO.** Rendir la Cuenta General así aprobada, junto con toda la documentación que la integra, a la Cámara de Comptos de Navarra y al Departamento correspondiente del Gobierno de Navarra, en cumplimiento de las obligaciones de control externo y transparencia vigentes.

3. **TERCERO.** Facultar a la Presidencia para la firma de cuantos documentos y certificaciones sean necesarios para la plena efectividad y tramitación de este acuerdo.

**<u>9. DESAFECTACIÓN DEL TERRENO PARA SU POSTERIOR CESIÓN DE USO, SI PROCEDE, A FAVOR DE CEDERNA GARALUR.</u>**

El objeto de la desafectación para su posterior cesión es terreno comunal que suma un total 37,55 m² (7,55m² el mirador celeste y 30m² la línea de corriente), distribuido en un total de 1 recintos, situados en el paraje de Irati. Se ceden a nombre de persona jurídica ASOCIACIÓN CEDERNA GARALUR CIF G31372063.

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Erabileraren lagapenaren helburua zeru-behatoki bat instalatzea da. Lagapen-hartzaileak ezin izanen du helburua aldatu. Instalazioa administrazio-espedientean jasotako proiektu teknikoaren arabera eginen da: "Irati Basoa-Zaraitzu Mendi Gunean zeru-behatoki bat instalatzeko esku-hartze txostena", Reinadecorazones Cultura de Proyectos SL enpresak idatzia.

Jarduketa hori herri-lursail batean kokatzen denez eta horri eragiten dionez, Batzordeak, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Herri-lurren Atalaren bidez, Nafarroako Gobernuaren baimena lortu beharko du aipatutako herri-lurren desafektazioa eta ondorengo erabilera-lagapena egiteko, nahitaezko izapideen ziurtagiriak aurkeztuz.

Jendaurrean jartzeko epea amaituta, alegaziorik izan ez denez, Batzordeak aho batez erabaki du desafektazio-espedientea behin betiko onestea.

Izapide horiek egin eta betiere dagozkion gainerako baimenak izan ondoren, dokumentazioa Herri-lurren Atalari igorriko zaio, desafektazioa onestea eskatzeko.

Atalak, berriz, gora bidaliko du, gobernu-akordioa sinatu dadin.

**10. JAIOTZAGATIKO LAGUNTZA ESKAERA**

Rakel Zokok bere alabaren jaiotzarengatik aurkeztutako eskaera eta agiriak aztertu ondoren, aho batez erabaki da dirulaguntza ematea.

Laguntza hori datozen 3 urteetan ordainduko da: lehen ordainketa aurten, eta besteak 2027ko eta 2028ko abenduan,

El fin de la cesión del uso es la instalación de un mirador celeste. La cesionaria no podrá cambiar el destino del mismo. Las instalaciones se realizarán conforme al Proyecto Técnico obrante en el expediente administrativo, denominado “INFORME DE INTERVENCIÓN PARA LA INSTALACIÓN DE UNA UNIDAD DE MIRADOR CELESTE EN EL CENTRO DE MONTAÑA MENDI GUNEA (Selva de Irati Salazar)”, redactado por Reinadecorazones Cultura de Proyectos S.L.

Siendo que el mirador celeste se pretende realizar ocupando terrenos de propiedad comunal, la Junta deberá obtener, a través de la Sección de Comunales del Dpto. de Desarrollo Rural y Medio Ambiente, la autorización del Gobierno de Navarra para la desafectación y posterior cesión de uso de los referidos terrenos comunales, aportando los certificados de los trámites preceptivos.

**Finalizado el plazo de exposición pública en el BON, no hay alegaciones, Y la Junta acuerda por unanimidad la aprobación definitiva del expediente de desafectación.**

Una vez realizados esos trámites, y siempre y cuando se tengan previamente el resto de autorizaciones pertinentes, se remite la documentación a la Sección de Comunales para solicitar la aprobación de la desafectación.

La Sección sube a firma el pertinente Acuerdo de Gobierno que autorice la desafectación solicitada.

**10. SOLICITUD AYUDAS A LA NATALIDAD**

Vista la solicitud y documentación presentada dentro del Programa Regulador de las Ayudas a la natalidad por Rakel Zoko, por su hija, cumpliendo los requisitos establecidos en las bases, se ACUERDA POR UNANIMIDAD conceder la citada ayuda. La citada ayuda será abonada en 3 anualidades, la 1ª el año del nacimiento y las otras, tras realizar la correspondiente solicitud y presentación de la documentación

31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

dagozkien eskaerak egin eta eskatutako agiriak aurkeztu ondoren.

**11. BATZORDEAREN ONDASUN HIGIGARRIEN (MAHAIAK ETA AULKIAK) ERRENTAMENDU-KONTRATUA ONESTEKO PROPOSAMENA**

Zaraitzuko Batzordearen jabetzako material higigarria (mahaiak eta aulkiak) alokatzeko izapidetutako espedientea aztertu da. Horren helburua da hirugarrenei aldi baterako lagapenak arautzea, behar bezala erabili eta kontserbatzen dela eta dagokion kontraprestazio ekonomikoa ematen dela bermatuz.

Batzordearen eskumena da bere ondasun higigarriak kudeatzea, administratzea eta optimizatzea, bai eta partikularrek edo erakundeek ondasun horiek erabiltzeko bete behar dituzten baldintzak ezartzea ere.

Alokairu-kontratuaren zirriborroa aztertu da. Bertan, alderdien betebeharrak, tarifak eta materiala kaltetu edo galduz gero aplikatu beharreko erantzukizuna zehazten dira.

Gaia eztabaidatu ondoren, Batzorde Nagusiak aho batez erabaki du:

Lehenengoa. Zaraitzuko Batzordearen jabetzako ondasun higigarrien (mahaiak eta aulkiak) alokairu-kontratuaren eredua onestea, espediente honen eranskin gisa doana.

Bigarrena. Alokairu-zerbitzuaren funtsezko baldintzak ezartzea, ondokoak barne hartuta: errentariak materiala bere kabuz jasotzeko eta itzultzeko betebeharra eta balizko kalteei erantzuteko erantzukizuna.

Aplikazio-eremua eta tarifak:

requerida, antes de finalizar el año (diciembre 2027 y 2028).

**11. PROPUESTA DE APROBACIÓN DEL CONTRATO DE ARRENDAMIENTO DE BIENES MUEBLES (MESAS Y SILLAS) PROPIEDAD DE LA JUNTA**

Visto el expediente tramitado para el arrendamiento de material mobiliario (mesas y sillas) de propiedad de esta Junta, con el fin de regular su cesión temporal a terceros, garantizando su correcto uso, conservación y la correspondiente contraprestación económica.

Considerando que es competencia de esta Junta la gestión, administración y optimización de sus bienes muebles, así como la fijación de las condiciones que han de regir su uso por parte de particulares o entidades.

Examinado el borrador del contrato de alquiler elaborado al efecto, en el cual se detallan las obligaciones de las partes, las tarifas aplicables y la responsabilidad en caso de daños o pérdida del material.

La Junta General, tras deliberación y por unanimidad, **ACUERDA:**

**Primero. — Aprobar** el modelo de contrato de arrendamiento de bienes muebles (mesas y sillas) propiedad de la Junta, cuyo texto íntegro queda incorporado como anexo al presente expediente.

**Segundo. — Establecer** las condiciones esenciales del servicio de alquiler, que incluirán la obligación del arrendatario de retirar y devolver el material por sus propios medios, y la responsabilidad de responder de posibles daños.

Ámbito de aplicación y tarifas:

- Actos de carácter privado: Se establece una tarifa de alquiler de 1 € por silla y 3 € por mesa.
- Actos de carácter público o de interés general: El uso del mobiliario será completamente gratuito, no devengando tasa ni precio público alguno.

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

- Ekitaldi pribatuak: 1 euro/aulkia eta 3 euro/ mahaia.
- Ekitaldi publikoak edo interes orokorrekoak: altzariak doan lagako dira, ez da inolako tasa edo prezio publikorik ezarriko.

Kalteen erantzukizuna: Erabilera pribatua zein publikoa izan, eskatzaileak edo errentariak bere gain hartuko du altzarien egoeraren gaineko erantzukizun osoa. Aulkiak edo mahaiak galdu, hondatu edo hautsiz gero, eskatzaileak bere gain hartuko du eragindako kalteak ordaintzeko edo birjartzeko ardura.

Hirugarrena. Batzordeburuari eskumena ematea erabaki hau eraginkorra izateko beharrezkoak diren kudeaketa guztiak egiteko eta izan daitezkeen kontratu partikularrak sinatu ditzan.

**12. ABELTZAINEI ZEHAPENA JARTZEA, LARREEI BURUZKO ARAUDIA EZ BETETZEAGATIK**

**AURREKARIAK**

Lehenengoa: Zaraitzuko Batzordeak jakin du ekainaren 2an, 15ean eta 18an zenbait abeltzainek ez zituztela bete Zaraitzuko Batzorde Nagusiaren araudiko 1. eta/edo 6. eta/edo 8. puntuak, betebehar hau ezartzen dutenak: "Abeltzainek konpromisoa hartzen dute baimendutako abelburuak soilik igotzeko", "Abereak herri-larreetara igo baino egun bat lehenago abisatu behar dute" eta "Abeltzainek bortuan izan daitekeen abereen mugimendu ororen berri emanen diete Batzordeko larrezainari/baso-langileei, jakinaren gainean egon daitezen eta behar diren ondorioetarako”.

Bigarrena**:** Aurten abeltzaintza batzordearekin (ardi-, behi- eta zaldi-aziendako abeltzainak)

Responsabilidad por daños: En ambos casos (tanto si el uso es privado como público), el solicitante o arrendatario asumirá la total responsabilidad sobre el estado del mobiliario. En caso de pérdida, daño o rotura de las sillas o mesas, el solicitante se hará cargo obligatoriamente del pago o reposición de los desperfectos ocasionados.

**Tercero. — Facultar** al Presidente de la Junta para la firma de cuantos contratos particulares se deriven de este acuerdo general y para la realización de todas las gestiones necesarias para la efectividad del presente acuerdo.

**12.- SANCIONAR A GANADEROS POR INCUMPLIMIENTO DE LA NORMATIVA DE PASTOS DE LA JUNTA.**

**ANTECEDENTES**

PRIMERO: Con fecha 2, 15 y 18 de junio, la Junta ha tenido conocimiento del incumplimiento por parte de ganaderos respecto al punto 1 y/o 6 y/o 8 del Reglamento de Normas de la Junta General del Valle de Salazar, que establece la obligación de “Las personas ganaderas se comprometen a subir única y exclusivamente las cabezas de ganado autorizadas”, "avisar un día antes de que se va a subir el ganado al comunal del Valle" y “Para conocimiento y efectos, las personas ganaderas notificarán al Guarda de Pastos/Trabajadores/as Forestales de la Junta, todo movimiento de ganado en el Puerto”.

SEGUNDO: Después de varias reuniones con la comisión de ganadería (ovino, vacuno y equino) durante este año 2026 y la firma de cada persona ganadera de la mencionada Normativa al sacar la autorización para la subida de ganado al comunal del valle a partir del 25 de mayo, y tras las comprobaciones pertinentes, se ha verificado que algunos ganaderos no han cumplido la normativa de pastos del Valle.

TERCERO: El incumplimiento de dicha norma conlleva la aplicación de las sanciones previstas en el Reglamento de Régimen Sancionador de la Junta General del Valle de Salazar, según lo dispuesto en su apartado B.

hainbat bilera egin dira, eta abeltzain bakoitzak herri-larreetara abereak igotzeko baimen-eskaerarekin batera aipatutako araudia sinatu du. Behar diren egiaztapenak egin ondoren, egiaztatu da abeltzain batzuek ez dutela aipatu araudi hori bete.

Hirugarrena**:** Araua ez betetzeak Batzorde Nagusiaren Zehapenen Araubidearen Erregelamenduan ezarritako zehapenak aplikatzea dakar, B atalean xedatutakoaren arabera.

**OINARRI JURIDIKOAK**

Lehenengoa: Zaraitzuko Batzorde Nagusiaren larreen aprobetxamendurako araudia eta ez-betetzeen eta zehapenen araubidea (Irati eta Erremendia, 2026ko kanpaina) herri-ondasunen erabilera eta aprobetxamendua arautzen duen arau-esparrua da, eta abeltzainek nahitaez bete behar dute.

Bigarrena: Araubidea 2026ko maiatzaren 6ko osoko bilkuran onetsi zen, eta Batzorde Nagusiaren webgunean eta iragarki-oholean argitaratu zen.

Hirugarrena: Abereak bortura baimenik gabe eramateak (...) oso zigor larria ekar dezake.

Laugarrena: Abereak herri-larreetara igotzeko aurrez jakinarazteko betebeharra ez betetzea arau-hauste larria da, eta, beraz, zehapena jaso daiteke.

Batzordeak aho batez erabaki du:

Lehenengoa: espedientean agertzen diren abeltzainei jakinaraztea zehapen bat jarri zaiela, Batzordeko larrezainari/baso-langileei idatziz edo telefonoz ez jakinarazteagatik ganadua bortuan sartu, mugitu eta behin betiko irten dela.

**FUNDAMENTOS JURÍDICOS**

PRIMERO: La **Normativa y Régimen de incumplimientos y sanciones para el aprovechamiento de los pastizales de la Junta General del Valle de Salazar: Irati y Remendia, campaña 2026** es el marco normativo que regula el uso y aprovechamiento de los bienes comunales, siendo de obligado cumplimiento para todas las personas ganaderas.

SEGUNDO: La mencionada normativa fue aprobada en sesión del día 6 de mayo de 2026, y se publicó en la página web de la Junta y en el tablón de la misma.

TERCERO: Llevar a los Puertos ganado no autorizado (…) es susceptible de sanción muy grave.

CUARTO: El incumplimiento de la obligación de preavisar la subida del ganado al comunal del Valle constituye una infracción grave del citado Reglamento y, por tanto, es susceptible de sanción.

**La Junta acuerda por unanimidad:**

PRIMERO: Notificar a los ganaderos adjuntos en el expediente la imposición de una **sanción** por incumplimiento de *No notificar al Guarda de Pastos/Trabajadores/as Forestales de la Junta, por escrito o mediante llamada telefónica: la entrada, movimientos y salida definitiva del ganado de los Puertos.*

SEGUNDO: Esta sanción impuesta consiste en una multa de 50 euros, de conformidad con lo establecido en el apartado B del Reglamento de Régimen Sancionador de la Junta General del Valle de Salazar.

TERCERO: Dicha sanción se pagará a partir del 15 de diciembre, junto al aprovechamiento del comunal del Valle.

CUARTO: De igual manera notificar a otro ganadero la imposición de otra sanción muy grave por *llevar a los Puertos ganado no autorizado*: en la campaña siguiente, retraso en la fecha de subida a los Puertos (mínimo 30 días).

QUINTO: Comunicar el presente acuerdo a los interesados, a los efectos oportunos.

Bigarrena: Zehapena 50 euroko isuna izanen da, Zaraitzuko Batzorde Nagusiaren Zehapenen Araubidearen Erregelamenduko B atalean ezarritakoaren arabera.

Hirugarrena: Zehapena abenduaren 15etik aurrera ordainduko da, herri-lurren aprobetxamenduaren tasarekin batera.

Laugarrena: Abeltzain bati jakinaraztea zehapen larri bat jarri zaiola, abereak bortura baimenik gabe eramateagatik: hurrengo urtean bortura igotzeko eguna atzeratuko zaio, gutxienez 30 egun.

Bosgarrena: Interesdunei erabaki honen berri ematea, behar diren ondorioak izan ditzan.

**13. ZARAITZUKO MUSIKA ESKOLAREN PATRONATUA**

Patronatuak bidalitako idazkiaren berri eman da. Horren bidez, Zaraitzuko Batzordeak ematen duen urteko laguntzaren % 50 aurreratzea eskatu du. Azaldu duenez, likidezia lortu behar du gastu arruntak eta 2026ko ekainetik irailera bitartean epe-muga duten betebeharrak ordaintzeko, Gizarte Segurantzaren kotizazioak eta PFEZren atxikipenak, besteak beste.

Eskaera eta Batzordearen 2026ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorraren betearazte-egoera aztertu ondoren, egiaztatu da xede horretarako aurrekontu-partida bat dagoela, 25.000 euroko hasierako kredituarekin. Horrenbestez, kreditu nahikoa egonik eta adierazitako premia benetakoa izanik, zenbateko horren erdia transferitzeko proposamena bozkatu da, eta Batzordeak aho batez erabaki du:

- 12.500 euroko ekarpen ekonomiko bat baimentzea eta Patronatuaren alde transferitzea, 2026ko aurrekontu-partidaren kargura, langileen

**13.- PATRONATO ESCUELA DE MÚSICA VALLE DE SALAZAR**

Se da cuenta a los miembros de la Junta de la recepción de un escrito remitido por el Patronato, mediante el cual se solicita de manera anticipada el 50% del apoyo económico anual que ordinariamente concede esta Junta. La citada petición se justifica en la necesidad de obtener liquidez para subsanar los gastos corrientes y obligaciones pendientes de vencimiento durante el período comprendido entre junio y septiembre de 2026, referidos principalmente a cotizaciones de la Seguridad Social y retenciones de I.R.P.F., entre otros.

Examinada la solicitud y verificado el estado de ejecución del presupuesto general de la Junta para el presente ejercicio 2026, se constata la existencia de una partida presupuestaria dotada con un crédito inicial de 25.000,00 € consignada para tal fin. Consecuentemente, al comprobarse disponibilidad de crédito suficiente y la idoneidad de la urgencia manifestada, se somete a votación la propuesta de transferir la mitad de dicha cuantía.

La Junta, tras deliberar sobre el asunto, adopta por unanimidad el siguiente acuerdo:

Autorizar y proceder a la transferencia de una aportación económica por importe de 12.500,00 € a favor del Patronato, con cargo a la correspondiente partida de los presupuestos de 2026, al objeto de atender los gastos preferentes de personal y obligaciones fiscales detallados en su solicitud.

Por otro lado, se da cuenta de la propuesta que contiene el articulado destinado a integrar el Pacto de Empresa entre el Patronato y el representante del personal trabajador del Patronato. Dicho documento es el resultado de la negociación y elaboración conjunta llevada a cabo entre el mencionado Patronato, esta Junta General y la representación del personal trabajado.

lehentasunezko gastuei eta zerga-betebeharrei aurre egiteko.

Bestalde, Patronatuaren eta Patronatuko langileen ordezkariaren arteko Enpresa Ituna osatuko duten artikuluen proposamenaren berri eman da. Dokumentu hori Patronatuak, Zaraitzuko Batzorde Nagusiak eta langileen ordezkariak egindako negoziazioaren eta lanketaren emaitza da.

Behin betiko testua eta jasotako baldintzak aztertu eta ontzat hartu ondoren, Zaraitzuko Batzordeak aho batez erabaki du:

- Jasotako ekarpenak onetsi, haien edukia testuan sartu eta Enpresa Itunaren dokumentua behin betiko onestea.

Azkenik, Patronatuak Musika Eskolak 2026ko ekainaren 15era arte gauzatutako diru-sarreren eta gastuen aurrekontu partziala bidali du, onetsi dadin, dirulaguntza deialdiaren VI. eranskinarekin bat.

**14. FURGONETA BAT EROSTEA ETA AURREKONTU-ALDAKETA ONESTEA, EGOKIA BADA**

Adierazi da Zaraitzuko Batzordearen egungo egoera ekonomikoak ez duela aurrekontu-defiziteko arazorik, likidezia-tentsio puntual bat baizik (diruzaintza).

Datu ekonomikoak eta finantza-egoeraren azterketa zehatza egin ondoren, egiaztatu da, aurreko osoko bilkuran onetsitako kontuen likidazio xehakatuan agertzen den bezala, Batzorde Nagusiak gastu orokorretarako 765.269,48 euroko diruzaintzako gerakina duela.

Gerakina nahikoa dela kontuan hartuta, Batzordeak mailegua eskatzea baztertu eta

Tras examinar el texto definitivo y valorar positivamente los términos alcanzados, la Junta adopta por unanimidad el siguiente acuerdo.

- Aceptar las aportaciones recibidas e incorporar formalmente su contenido al texto, acordando por unanimidad la aprobación definitiva del documento del Pacto de Empresa en los términos presentados.

Finalmente, el Patronato manda para su aprobación el presupuesto parcial ejecutado o realizado de ingresos y gastos de la Escuela de Música a fecha 15 de junio de 2026, de acuerdo con el anexo VI de la convocatoria de subvenciones.

**14.- ADQUISICIÓN DE UNA FURGONETA Y MODIFICACIÓN PRESUPUESTARIA, SI PROCEDE.**

Se hace constar que la situación actual de la Junta no presenta un problema de déficit presupuestario, sino una tensión puntual de liquidez (tesorería).

Examinados los datos económicos y tras un análisis detallado del estado financiero de la entidad, los miembros de la corporación constatan que, tal y como se desglosa en la liquidación de cuentas aprobada formalmente en la sesión anterior, esta Junta General dispone de un remanente de tesorería para gastos generales que asciende a la cantidad de 765.269,48€.

Considerando la suficiencia del remanente, se coincide por los presentes en la conveniencia de descartar la vía del préstamo personal y proceder a la compra directa (inversión) del vehículo mediante la tramitación de una modificación presupuestaria.

La Junta, tras debatir el asunto, adopta por **unanimidad** los siguientes acuerdos:

**PRIMERO.** Desestimar la oferta de préstamo personal presentada por Caja Rural de Navarra para la adquisición del vehículo por considerarse económicamente más gravosa para la entidad.

**SEGUNDO.** Aprobar la compra directa de la furgoneta por un importe de 24.104,82€.

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

ibilgailua zuzenean (inbertsioa) erostea hobetsi du, horretarako aurrekontu-aldaketa bat izapidetuz.

Horrenbestez, Batzordeak aho batez erabaki hauek hartu ditu:

Lehenengoa. Nafarroako Rural Kutxak ibilgailua erosteko aurkeztutako mailegu-eskaintza ezestea, Batzordeari garestiago ateratzen zaiolako.

Bigarrena. Furgoneta zuzenean erostea, 24.104,82 euroan.

Hirugarrena. Aurrekontu-aldaketa egiteko izapideak hastea, erosketaren kostuaren zenbateko osokoa, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kargura.

Laugarrena. Zurich Insurance PLC konpainiarekin Citroën Berlingo ibilgailurako aseguru-polizaren kontratazioa onestea, 547,63 euro urtean.

Bosgarrena. Batzordeburuari eskumena ematea erabakia eraginkorra izateko behar diren dokumentu guztiak formalizatu eta sinatu ditzan, poliza bera eta eranskinak barne.

**15. BATZORDEBURUAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren bidez (BOE, 1986ko abenduaren 22koa) onetsitako Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduaren (AJA) 42. artikuluarekin bat, azken ohiko osoko bilkuraz geroztik Batzordeburuak emandako ebazpenen berri eman da.

Honako hauek dira:

**TERCERO.** Iniciar los trámites oportunos para la elaboración del expediente de **modificación presupuestaria** con cargo al remanente de tesorería para gastos generales por el importe total del coste de adquisición.

**CUARTO**. Aprobar la contratación de la póliza de seguro para el vehículo Citroën Berlingo con la compañía Zurich Insurance PLC, por un importe anual total de 547,63 euros.

**QUINTO**. Facultar al Presidente para la formalización y firma de cuantos documentos sean necesarios o convenientes para la plena eficacia de este acuerdo, incluida la firma de la propia póliza y sus anexos.

**15.- DACIÓN DE CUENTA DE LAS RESOLUCIONES DE PRESIDENCIA**

Se da cuenta a la Corporación de las Resoluciones de Presidencia adoptadas desde la última sesión plenaria ordinaria para que conozcan el desarrollo de la administración local a los efectos del control y fiscalización de los órganos de gobierno, en virtud de lo establecido en el artículo 42 del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de la EEL (ROF), aprobado por Real Decreto 2

568/1986, de 28 de noviembre, y que son las siguientes:

- RESOLUCIÓN DE PRESIDENCIA 16/2026 en la que se aprueba la lista definitiva para la convocatoria para la elaboración, mediante concurso-oposición, de una lista de aspirantes para la provisión temporal del puesto de Guarderío turístico:

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Escároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

- <u>16/2026 BATZORDEBURUAREN EBAZPENA,</u> Iratiko basozainen lanpostu bat aldi baterako betetzeko izangaien zerrenda oposizio-lehiaketa bidez egiteko deialdiko behin betiko zerrenda onesten duena:

| Nº plica | ASPIRANTE | TOTAL OPOSICIÓN 70 ptos. | SERVICIOS PRESTADOS (10 ptos) | | EUSKERA (15 ptos) | CURSOS DE FORMACIÓN (5 ptos) | TOTAL CONCURSO (20 ptos) | TOTAL 100 ptos |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 4 | LEIRE ALIENDE ORDUNA | 59,36 | 5,50 | 0 | 9 | 2 | 16,50 | **75,86** |
| 2 | MAITE ARIAS ILINCHETA | 55,36 | 0 | 0 | 12 | 0 | 12 | **67,36** |
| 1 | IONE EDER HUALDE | 40,74 | 0 | 0 | 15 | 0 | 15 | **55,74** |

- <u>17/2026 BATZORDEBURUAREN EBAZPENA,</u> Zaraitzuko Batzordearen eta Zaraitzuko zahar-etxearen arteko lankidetzarako eta ekarpen ekonomikoa emateko hitzarmenaren testua onesten duena. Guztira 20.000 euroko ekarpena eginen da. Hitzarmena ebazpen honen eranskin gisa sartuko da. Halaber, 20.000 euroko gastua baimendu du Zaraitzuko Batzorde Nagusiaren 2026ko ekitaldiko gastuen dagokion aurrekontu-partidaren kargura.

- <u>18/2026 BATZORDEBURUAREN EBAZPENA,</u> 26-00310 gora jotzeko errekurtsoa dela-eta, Batzorde Nagusiaren zerbitzu juridikoek egindako alegazioen txostena onetsi duena, errekurtsoaren oinarriak bere eginik eta Nafarroako Administrazio Auzitegiari errekurtsoa ezesteko eta aurkaratutako egintza berresteko eskatzeko ondorioarekin bat eginik.

- <u>19/2025 BATZORDEBURUAREN EBAZPENA,</u> Dabid Lalana Salbotxi ekainaren 29tik uztailaren 19ra, biak barne, telelana egiteko eta lanaldia % 33ra murrizteko baimena eman diona, bere semeak zaintzeko.

<u>- RESOLUCIÓN DE PRESIDENCIA 17/2026</u> en la que se aprueba el texto del Convenio de Colaboración y Otorgamiento de Aportación Económica entre la Junta del Valle de Salazar y la Residencia Valle de Salazar, por un importe total de 20.000 € (veinte mil euros), el cual queda debidamente incorporado como anexo a la presente resolución. Autorizar y disponer el gasto de 20.000 € con cargo a la partida correspondiente del presupuesto de gastos de la Junta General del Valle de Salazar para el ejercicio 2026, destinada a fines asistenciales y de colaboración con la citada Residencia.

<u>- RESOLUCIÓN DE PRESIDENCIA 18/2026</u> en la que se aprueba el informe de alegaciones elaborado por los servicios jurídicos de esta Entidad en relación con el Recurso de Alzada n.º 26-00310, asumiendo íntegramente sus fundamentos y la conclusión de solicitar al Tribunal Administrativo de Navarra la desestimación del recurso y la confirmación del acto impugnado.

- <u>RESOLUCIÓN DE PRESIDENCIA 19/2025</u> en la que se concede a Dabid Lalana Salbotx la posibilidad de teletrabajar y reducir su jornada a un 33% de jornada laboral desde el 29 de junio al 19 de julio, ambos inclusive, para la atención y cuidado de sus hijos.

## 16. JASOTAKO IDAZKIAK

- ZARAITZUKO PARROKIA-KOMUNITATEAK

Adinekoak garraiatzeko furgoneta egokitu baterako dirulaguntza eskatu dute:

"Azaltzen du: Gure ibarreko herrietako biztanleen zahartzearen ondorioz, beharrezkoa da adinekoen mugikortasuna eta autonomia bermatzea. Behar horri erantzuteko, furgoneta egokitu bat dago, herri guztietan aisialdi-jardueretara joateko eta otorduak banatzeko zerbitzua ematen duena. Gure asmoa da zerbitzu hori ematen jarraitzea, landa-eremuko biztanleen bizi-kalitatea hobetzeko.

Eskatzen du: Furgoneta egokituaren gastuak ordaintzeko dirulaguntza ematea."

Batzordeak honako hau erantzutea erabaki du:

Lehenengoa. Batzordea jakinaren gainean geratu da eta azaldu du ezinezkoa zaiola ibilgailu horren gastuak finantzatzeko dirulaguntza ematea.

Bigarrena. Nolahani ere, adierazi nahi du adinekoei laguntza ematen diela, izaera publikoko zerbitzuekin dituen lankidetza ekonomiko eta instituzionalaren bidez. Zehazki, Batzordeak Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea eta Zahar-etxea finantzatu eta horiekin lankidetzan dihardu, gizarte ongizatea sustatzeko, beste ekarpen batzuk ahaztu gabe.

- NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEN FEDERAZIOA:

Maiatzaren 18an ustez indarkeria matxistaz emakume bat hil ondoren, Arguedasko Udalak gertaera gaitzesteko onetsitako adierazpena bidali da, egokitzat joz gero, hari atxikitzeko; hori dena INAIk eta udaletako berdintasun-teknikariek adostutako protokoloarekin bat.

## 16.- ESCRITOS RECIBIDOS

- COMUNIDADES PARROQUIALES DEL VALLE DE SALAZAR

Solicitud ayuda económica para furgoneta adaptada de transporte de mayores: Expone: Que el envejecimiento de la población en los pueblos de nuestro Valle hace necesario garantizar la movilidad y la autonomía de nuestros mayores. Que para cubrir esta necesidad se dispone de una furgoneta adaptada, la cual realiza un servicio de actividades de ocio y gestiones diarias de comida a todos los pueblos que integran el Valle de Salazar. Que es voluntad de esta representación seguir prestando este servicio mejorar la calidad de vida en el entorno rural. SOLICITA: Que se tenga por presentado este escrito y, en atención a los motivos expuestos, se conceda una ayuda económica destinada a sufragar los gastos de la citada furgoneta adaptada.

Esta Junta acuerda trasladarle lo siguiente:

**Primero. -** Que esta Junta se da por enterada y comunica la imposibilidad de colaborar económicamente con la financiación de los gastos derivados del citado vehículo.

**Segundo. -** No obstante, se hace constar que esta entidad ya viene articulando su apoyo a las personas mayores a través de la colaboración económica e institucional con servicios de carácter público. En concreto, la Junta ya cofinancia y colabora de forma ordinaria con la Mancomunidad de Servicios Sociales y con la Residencia de Ancianos, entre otras aportaciones destinadas a sostener el bienestar social del Valle.

- FEDERACIÓN NAVARRA DE MUNICIPIOS Y CONCEJOS:

Siguiendo el protocolo acordado con el INAI y las técnicas municipales de Igualdad, se remite la declaración adjunta de condena aprobada por el Ayuntamiento de Arguedas tras la muerte de una mujer por un presunto caso de violencia machista el pasado día 18 de mayo, con el objeto de que, si lo consideran, se adhieran a la misma.

La junta acuerda por unanimidad adherirse.

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

Batzordeak aho batez erabaki du adierazpenari atxikitzea.

- KANPO HARREMANETARAKO ZUZENDARI NAGUSIA:

25E/2026 Ebazpena, mugaz gaindiko lankidetza-jarduerak sustatzeko toki-erakundeentzako dirulaguntza deialdia ebazten duena. Batzordearentzat 5.000 euro.

- ANTONIO DE BENITO, HAUR-LITERATURAKO IDAZLEA:

“Nire eskaintza da Zaraitzurako haur-liburu pertsonalizatu bat argitaratzea, bere natura, kultura, historia eta ondarea sustatzeko. Ekintza positibo baten bidez, gizarte- eta hezkuntza-eremuan ikusgarri egitea eta bere nortasunerako zein turismorako eta hezkuntzarako tresna on bat sortzea. 2.000 ale editatzea proposatzen dut, 4.700 euroan.”

Batzordeak erabaki du:

<u>Lehenengoa</u>. Jakinaren gainean geratzea eta bere lana garatzeko Zaraitzu kontuan hartu izana eskertzea.

<u>Bigarrena</u>. Jakinaraztea Batzordeari ezinezkoa zaiola proiektua finantzatzea edo diruz laguntzea.

- “CANTAR A VOCES” LA CORRALA

Cantar a Voces proiektua 2025ean sortu zen, emakumeen ikuspegia erdigunean jartzen duen begirada garaikide batetik folklorea biziberritzeko asmo irmoarekin. Ikuspegi horretatik, musika-tradizioen izatea eta aberastasuna gordetzearekin batera, tradizio horiek berrinterpretatu eta bizitza berria eman nahi die, egungo garaietara egokituta. Emanaldiak 45 minutuko iraupena du, eta 2.000 euroko aurrekontua (+BEZ), gutxi gorabehera. Gainera, hainbat lankidetza-formaturi irekita

- DIRECTOR GENERAL DE ACCIÓN EXTERIOR:

Resolución 25E/2026 por la que se resuelve la convocatoria de Subvenciones a EELL para el impulso de actividades de cooperación transfronteriza por un importe de 5.000€.

- ANTONIO DE BENITO, ESCRITOR DE LITERATURA INFANTIL:

*Mi ofrecimiento gira en torno a la edición de un libro infantil personalizado para el Valle de Salazar con el objetivo de promocionar su patrimonio natural, cultural, histórico... mediante una acción positiva para su visibilidad en el ámbito social y educativo, convirtiéndose en una buena herramienta de identidad local y herramienta turística y educativa. Propongo la edición de 2.000 ejemplares por un coste final de 4.700€.*

La Junta acuerda lo siguiente:

**Primero. -** Que esta Junta se da por enterada de su propuesta editorial, agradeciendo que haya considerado al Valle de Salazar como escenario para el desarrollo de su labor.

**Segundo. –** Que se le comunica la imposibilidad de colaborar económicamente y de asumir la financiación del proyecto propuesto.

- “Cantar a Voces” LA CORRALA

El proyecto “Cantar a Voces” nace en 2025 con la firme intención de revitalizar el folclore desde una mirada contemporánea que pone en el centro la perspectiva femenina. A través de este enfoque, se busca no solo preservar la esencia y la riqueza de las tradiciones musicales, sino también reinterpretarlas y darles una nueva vida, adaptándolas a los tiempos actuales. Tiene una duración de 45 minutos y trabajan a partir de un presupuesto aproximado de 2.000€ + IVA. Además, están abiertas a diferentes formatos de colaboración: desde presentar su espectáculo completo, hasta crear un encuentro con coros o agrupaciones locales de la zona, compartir escenario, realizar una colaboración puntual o cualquier propuesta que pueda tener sentido.

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

daude: ikuskizun osoa aurkeztea, tokiko abesbatzekin edo taldeekin topaketa bat sortzea, agertokia partekatzea, unean uneko lankidetza bat egitea eta abar.

Batzordeak ongi baloratu du gure musika-tradizioen babesa eta ikuspegi garaikide eta soziala batzen dituen ekimen hau.

Eskaintza ikusita eta ibarreko zenbait elkartek proiektu horretan interesa dutela jakinda, Batzordeak ikuskizun hori kontuan hartu eta urrian Zaraitzuko Etxeko ekitaldi-aretoan programatuko diren jardueren barruan sartuko du.

-NICOLÁS AGUSTÍN RATTI: "Abodiko pistako bidegurutzetik Cerrillar aldera, 100 metrora, pago bat erorita dago. Eskatzen du: Etxerako egur gisa esleitzea."

Nafarroako Gobernuko Basozainek pagoa markatu zuten, gehienez hektarea bat. Batzordeak eskaera baimendu du.

- ILUMBERRI KIROL ELKARTEA

Haren egiturari eusteko (9 ekipo) diru-ekarpena eskatu dute, zelaian jarritako publizitate-hesiarekin jarraituz.

Batzordeak aho batez erabaki du 242 euro ematea, iaz bezala, 92002 2260201 "Publizitatea, zabalkundea eta iragarki ofizialak" aurrekontu-partidaren kargura.

- HEZKUNTZAKO ETA LANBIDE HEZIKETAKO ZUZENDARI NAGUSIA

235/2026 Ebazpena, Musika Eskolentzako 2026ko dirulaguntzen behin-behineko banaketa-proposamena onesten duena: Zaraitzuko Musika Eskolarentzat 17.500 euro.

**17. IZANDAKO BILERAK**

La Junta valora muy positivamente esta iniciativa que une la preservación de nuestras tradiciones musicales con el enfoque contemporáneo y social que plantean.

A la vista de su ofrecimiento y habiendo tenido conocimiento del interés de las asociaciones locales del Valle en su proyecto, **esta Junta tiene la intención de contar con su espectáculo.** En concreto, se prevé su inclusión dentro de las actividades programadas para **octubre**, teniendo como espacio previsto el salón de actos de esta Junta.

-NICOLÁS AGUSTÍN RATTI:

*En el cruce de Pista de Abodi hacia Cerrillar, a 100m entrando por la del Cerrillar, se encuentra un haya caída. SOLICITA se le adjudiquen como leña para hogar.*

El Guarderío de Medio Ambiente del GN realizó la marcación de esta haya, <1 Ha. La Junta autoriza la solicitud.

- CLUB DEPORTIVO ILUMBERRI

Solicitan aportación para seguir manteniendo una estructura de nueve equipos y mantenimiento de valla publicitaria.

La Junta ACUERDA POR UNANIMIDAD aportar 242€, al igual que el año pasado, que irá con cargo a la partida presupuestaria 92002 2260201 Publicidad difusión y anuncios oficiales.

- DIRECTOR GENERAL DE EDUCACIÓN Y FORMACIÓN PROFESIONAL

Resolución 235/2026 de propuesta de reparto provisional subvenciones Escuelas de Música 2026 por un importe de 17.500€.

**17.- REUNIONES MANTENIDAS**

- 11 de mayo: primero con la comisión de montes para hacer una propuesta de cortas del plan especial de Irati, y después con la CTP.
- 12 de mayo: con la Mesa del Pirineo.
- 14 de mayo: con el personal del Proyecto Respira, y con el Patronato de Música.

- Maiatzaren 11n: lehenik, mendien batzordearekin, Iratiko plan bereziaren mozketa-proposamen bat egiteko; ondoren, PLErekin.

- Maiatzaren 12an: Pirinioko Mahaia.

- Maiatzaren 14an: lehenik, RESPIRA proiektuko langileekin; ondoren, Musika Eskolaren Patronatuarekin.

- Maiatzaren 18an: Iratiko irisgarritasun-proiektua idatzi duen enpresarekin.

- Maiatzaren 19an: irisgarritasunari buruzko ikastaroa.

- Maiatzaren 22an: kontseilariarekin, Biosfera Erreserbaren gaia lantzen jarraitzeko.

- Maiatzaren 27an: Pirinioko Mahaia.

- Maiatzaren 28an: Irati Lau Ibarrak elkartea.

- Ekainaren 12an: Urruxkide eguneko batzordea.

- Ekainaren 15ean: Batzordeko baso-langileekin.

- Ekainaren 16an: Pirinioko Mahaia.

- Ekainaren 18an: kontseilariarekin eta ibarreko abeltzainekin, hartzaren agerpenaz aritzeko.

- Ekainaren 19an: Pirinioetako Ibilbide Handiaren aurkezpena.

- Ekainaren 22an: GR Zaraitzubideren eta Abodiko izarren behaketarako mahaiaren aurkezpena.

- Ekainaren 23an: Iratiko basozainekin.

- Ekainaren 24an: Cederna Garalurrekin.

- Ekainaren 25ean: Intiarekin, Erremendian.

- 18 de mayo: con la empresa redactora del proyecto de accesibilidad en Irati.

- 19 de mayo: curso sobre accesibilidad.

- 22 de mayo: con el Consejero para avanzar en la Reserva de la Biosfera.

- 27 de mayo: con la Mesa del Pirineo.

- 28 de mayo: con la Asociación de Irati Lau Ibarrak.

- 12 de junio: con la comisión del Urruxkide Eguna.

- 15 de junio: con el personal del equipo forestal de la Junta.

- 16 de junio: con la Mesa del Pirineo.

- 18 de junio: con el consejero y los ganaderos del valle para tratar la aparición del oso.

- 19 de junio: presentación de la Gran Ruta del Pirineo.

- 22 de junio: presentación de la GR Zaraitzubide y de la mesa estelar ubicada en Abodi.

-23 de junio: con el equipo del Guarderío turístico.

- 24 de junio: con Cederna Garalur.

- 25 de junio: en Remendía con Intia.

## 18.- DISPOSICIÓN DE FONDOS

Seguidamente son aprobadas las facturas que se detallan a continuación

## 18. DIRUAREN ERABILERA

Faktura hauek onetsi dira:

| | |
|---|---|
| CONATEL, teléfono y wifi vía satélite caseta información abril | 68,53 |
| SISNET, cuota teléfonos junta y trabajadores y fibra abril | 102,18 |
| LUGA, diverso material Guarderío turístico | 146,66 |
| LUGA, estacas de acacia | 296,45 |
| LUGA, material montes y vestuario forestales | 337,51 |
| IMPROAUDIO, equipo sonido Salón de actos | 24.397,10 |

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

IMPROAUDIO, equipo imagen Salón de actos ........ 31.807,12
DECATHLON, vestuario forestal y guarda pastos ........ 114,96
CORREOS, envío certificado ........ 7,18
Mª E. SANCHEZ, material limpieza caseta información ........ 38,80
CAJA RURAL, mantenimiento anual programa contabilidad ........ 1.815,00
JUNTA RONCAL, reparto gastos concurso microcuentos, Serv. Euskera ........ 200,50
SOM ENERGIA, luz Casa del Valle abril ........ 259,22
CERRAJERÍA DANIEL, varias copias llaves ........ 22,41
TALLERES AREKI, alternador Toyota y enganche Dacia ........ 418,84
CAJA RURAL, mantenimiento anual gestor de expedientes ........ 1.130,14
BIAK ZERBITZUAK, limpiezas Casa del Valle y vivienda ........ 403,96
ELEC. ÁNGEL SAMPER, cambio luces emergencia sótanos y escalera interior ........ 1.704,83
INÉS PATRICIO, informe valoración adecuación Centro acogida Irati ........ 1.087,39
RABAL AUTO SL, MONTAJE HARD TOP Toyota Hilux ........ 4.170,87
IBERDROLA, luz báscula 16/03 al 16/04 ........ 5,42
LUGA, material montes, vestuario y matrícula ........ 685,42
VITALY HEALTH SERVICES, servicio prevención y vigilancia salud ........ 1.152,32
SOM ENERGIA, luz vivienda Casa del Valle 18/04 a 17/05 ........ 38,75
EST. SERV. IRATI, gasóleos vehículos Junta y trabajos forestales mayo ........ 978,75
LUGA, diverso material mantenimiento senderos ........ 34,00
LUGA, vestuario y material pastizales ........ 493,11
VALENZUELA HNOS, utillaje forestales ........ 37,34
SERRERIA LASTER BIDE, estacas acacia ........ 338,80
CONATEL, teléfono y wifi vía satélite caseta información mayo ........ 68,53
SEAL MAQUINARIA, perneras y varios motosierra y desbrozadora ........ 357,13
MENDIXUT, publicidad en revista ........ 744,15
AYTO EZCAROZ, reparto gastos consumo caldera biomasa enero-junio ........ 2.126,46
SISNET, cuota teléfonos junta y trabajadores y fibra mayo ........ 101,07
SALTOKI, diverso material mantenimiento infraestructuras ganaderas ........ 515,93
CORREOS, envío certificado ........ 9,73
ITOLEGI, material mantenimiento infraestructuras ganaderas ........ 25,75
EKILAN, redacción proyecto mejora balsa Muxumurru ........ 5.472,67
TALLERES AREKI, soporte Dacia y soldaduras en Casa Valle ........ 253,62
SOM ENERGIA, luz Casa del Valle mayo ........ 330,37
FORUM SPORT, vestuario Guarderío turístico ........ 100,00
ASOC. CONSUMIDORES IRACHE, cuota socios valle mayo ........ 263,42
HEDA, edición revista Ze Berri? Nº 178, Serv. Euskera ........ 152,48

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR
ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA
31690 Ezcároz-Ezkaroze (Navarra)
Tel. 948 89 00 55
junta@valledesalazar.com
www.valledesalazar.com

**19. GALDE-ESKEAK**

Azaldu da Batzorde Nagusiak ez duela ibilgailu nahikorik eta, horren ondorioz, ezin direla zerbitzu eta zeregin guztiak behar bezala bete.

Gaiaz eztabaidatu eta mugikortasun-behar operatiboak aztertu ondoren, proposatu da pick-up bat erostea hurrengo ekitaldi ekonomikoko aurrekontuaren kargura, eta horretarako aurrekontu-aurreikuspen egokiak egitea.

Eta gai gehiagorik egon ez denez, 20:00etan Batzordeburuak bilkura amaitu du.

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau eman dut, Zaraitzuko Batzorde Nagusiaren zigilua jarrita eta Batzordeburuak ontzat emana.

Ezkarozen, 2026ko abuztuaren 19an

JUNTA GENERAL DEL VALLE DE SALAZAR · ZARAITZUKO BATZORDE NAGUSIA · EZCAROZ

33437743K GUSTAVO GOYENA (R: P3174900E)

Firmado digitalmente por 33437743K GUSTAVO GOYENA (R: P3174900E)
Fecha: 2026.08.19 08:21:48 +02'00'

**19.- RUEGOS Y PREGUNTAS**

Se expone la problemática derivada de la insuficiencia de la flota actual de vehículos de la entidad, evidenciando que el número de efectivos disponibles resulta insuficiente para cubrir adecuadamente la totalidad de los servicios y tareas que se desarrollan en el Valle.

Tras el correspondiente debate y analizar las necesidades operativas de movilidad, se plantea como solución la ampliación de la flota mediante la adquisición de un nuevo vehículo tipo pick-up con cargo al presupuesto del próximo ejercicio económico, procediéndose a realizar las previsiones presupuestarias oportunas para tal fin.

Y, no habiendo más asuntos a tratar, el Sr. presidente levanta la sesión, siendo las veinte horas.”

Y para que así conste, expido la presente certificación sellada con el cuño de la Junta y con el Vº Bº del Presidente.

En Ezcároz, a 19 de agosto de 2026

73117228K SILVIA PENA (R: P3174900E)

Firmado digitalmente por 73117228K SILVIA PENA (R: P3174900E)
Fecha: 2026.08.19 08:21:58 +02'00'